



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, Gasteizen, Lehendakariitzako egoitzan, **2026ko UZTAILAREN 28an**, 10:00etan, egingo den bilerarako dei egiten dizut. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariitza, a las 10:00 horas del día **28 DE JULIO DE 2026**, con el siguiente

## GAI-ZERREDA

## ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

## LEHENDAKARITZA

## LEHENDAKARITZA

Erabaki-proposamena, Fondation Defenseurs d'Afrique (FDDA) erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematekoa. Helburua: giza eskubideen defendatzaileen gaitasunak indartuz, Afrikan giza eskubideen egoera hobetzen laguntzea.

2

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad Fondation Defenseurs d'Afrique (FDDA), para el proyecto de apoyo a la mejora de la situación de los derechos humanos en África mediante el fortalecimiento de las capacidades de las personas defensoras de los derechos humanos.



Erabaki-proposamena, PHARE Territorios Globales erakundeari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa. Helburua: Bakearen eta Indarkeriarik Ezaren Aldeko Hiri eta Lurralde Agenda: bake-agenda baterako ikaskuntzak eskalatzea.

3 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad PHARE Territorios Globales, para la Agenda Urbana y Territorial para la Paz y la No Violencia: escalar aprendizajes para una agenda territorial de paz.

Erabaki-proposamena, Nazio Batuen Beyond Lab-i zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa. Helburua: garapen jasangarriko helburuen tokiko egokitzapena (lokalizazioa) bultzatzea Portaeraren Zientziaren bidez.

4 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Beyond Lab, de las Naciones Unidas, para impulsar la adaptación local (localización) de los Objetivos de Desarrollo Sostenible a través de la Ciencia del Comportamiento.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Tekniker Fundazioarekin sinatzeko lankidetzak-hitzarmen bat, berrikuntzarako unitate pilotu esperimental bat sortzeko kultura-ondarearen digitalizazioaren eta ondare digital eta digitalizatuaren kudeaketaren arloan.

5 Propuesta de Acuerdo de toma de conocimiento de un convenio de colaboración a suscribir con la Fundación Tekniker, para la creación de una unidad piloto experimental de innovación en digitalización del patrimonio cultural y gestión del patrimonio digital y digitalizado.

Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, eguneroko informazioa ematen duten komunikabide profesionalentzako dirulaguntzen deialdia finantzatzeko.

6 Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para financiar la convocatoria de subvenciones para medios de comunicación diarios profesionales.

Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, A0, A1 eta A2 mailatan sartzen diren ikasleei eta C1 helburua duten 16-18 urteko ikasleei zuzendutako dirulaguntzen deialdia finantzatzeko, 2026-2027 ikasturterako.

7 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para la financiación de la convocatoria de subvenciones dirigidas al alumnado que se incorpora a los niveles A0, A1 y A2 y al alumnado de 16 a 18 años con objetivo C1, para el curso académico 2026-2027.



Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde autonomoei (HABE), euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei laguntza ekonomikoak emateko 2026/2027 ikasturteko euskara-ikastaroetarako.

EKONOMIA, LAN ETA  
ENPLEGU SAILA

- 8 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para la concesión de ayudas económicas a los Organismos Autónomos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (HABE), Euskaltegis privados y Centros homologados de autoaprendizaje de euskera por cursos de euskera correspondientes al curso 2026/2027.

DEPARTAMENTO DE  
ECONOMÍA, TRABAJO Y  
EMPLEO

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Estatistikako Institutu Nazionalak eta Eustat/Euskal Estatistika Erakundeak lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko, 2026ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak eragiketa eta biztanleriaren eta etxebizitzaren funtsezko ezaugarrien inkesta egiteko Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan.

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA

- 9 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración entre el Instituto Nacional de Estadística y el Eustat-Instituto Vasco de Estadística, para la realización de la operación censos de población y viviendas 2026 y la encuesta de características esenciales de la población y viviendas, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DEPARTAMENTO DE  
HACIENDA Y FINANZAS

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa 2026ko uztailaren 9an sinatu dela AENA S.M.E. Sarekin sinatutako hitzarmenaren luzapena. Helburua: turismo-informazioko gune bat jartzea Donostiako aireportuan.

- 10 Propuesta de Acuerdo de toma de conocimiento de la suscripción, el 9 de julio de 2026, de la prórroga de un convenio de colaboración suscrito con AENA S.M.E. S.A., para la instalación de un punto de información turística en el Aeropuerto de San Sebastián.



- Erabaki-proposamena, 2027ko eta 2028ko ekitaldietan etorkizuneko konpromisoak 20.500.000,00 euroko guztizko zenbatekoarekin handitzeari buruzkoa, Parque Tecnológico S.A. sozietate publikoaren kreditu-beharrizanei aurre egiteko .
- 11 Propuesta de Acuerdo sobre aumento de compromisos futuros, en los ejercicios 2027 y 2028, para atender las necesidades crediticias de la sociedad pública Parque Tecnológico S.A., por importe total de 20.500.000,00 euros.
- Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintza-gerakinen kontura 124.474.307,10 eurotan zabaltzekoa eta zenbateko horrekin kreditu globala xedatzekoa, Hezkuntza Sailak 2026ko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei aurre egiteko, 2026ko irailetik abendura bitarteko hezkuntza-itunak finantzatzeko aldera.
- 12 Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, por importe de 124.474.307,10 euros, y de disposición del Crédito Global por dicho importe, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Educación en el ejercicio 2026, al objeto de financiar los conciertos educativos en el periodo septiembre-diciembre de 2026.
- Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura 2.016.228,17 eurotan zabaltzekoa eta zenbateko horrekin kreditu globala xedatzekoa Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko 3123 Programan, 2026ko ekitaldian, 2025eko gizarte-bonu termikoaren laguntza finantzatzeko.
- 13 Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, por importe de 2.016.228,17 euros, y de disposición del Crédito Global por dicho importe, en el programa 3123 Servicios Sociales del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, en el ejercicio 2026, al objeto de financiar la ayuda del Bono Social Térmico 2025.
- Erabaki-proposamena, baimena ematekoa langile-zuzkidura bat sortzeko Administrazio Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legearen 13.4 artikulua aplikatuz.
- 14 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la creación de 1 dotación de personal en la Administración General, en aplicación del artículo 13.4 de la Ley 7/2025, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2026.

GOVERNANTZA,  
ADMINISTRATIO DIGITAL  
ETA AUTOGOBERNUAREN  
SAILA

DEPARTAMENTO DE  
GOBERNANZA,  
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y  
AUTOGOBIERNO

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretua.

15

Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de personal funcionario de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko sailetakoa eta organismo autonomoetako funtzionarioen eta langile lan-kontratadunen lanpostu-zerrendak onartzen dituzten dekretuak.

16

Proyecto de Decreto de modificación de los Decretos por los que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo del personal funcionario y laboral de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

17

Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE  
EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Etxebarriko Udalarekin lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzeko, Etxebarriko Manuela Zubizarreta HLHIrako sarbidea urbanizatzeko obrak egiteko.

18

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Etxebarria, para la ejecución de las obras de urbanización del acceso al CEIP Manuela Zubizarreta HLHI de Etxebarria.



Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioarekin sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmen bat, BBK URDAIBAI ZENTROAN Urdaibai ingurumen-hezkuntzako proiektuaren funtzionamendurako.

19 Propuesta de Acuerdo de toma de conocimiento de un convenio de colaboración a suscribir con Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación bancaria, para el funcionamiento del proyecto de educación ambiental Urdaibai en el CENTRO BBK URDAIBAI.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Amurrioko (Araba) Mendiko HLHI ikastetxeko estalkia konpontzeko obrarako larrialdi-kontratua.

20 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para la obra de reparación de la cubierta en el centro CEIP Mendiko HLHI de Amurrio (Araba).

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez berresten baitira 2026ko uztailaren 7an Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioarekin sinatutako lankidetzeta-oinarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoak hizkuntza-laguntzailez hornitzeko 2026/2027 ikasturtean.

21 Propuesta de Acuerdo por el que se ratifican unas Bases de colaboración suscritas el 7 de julio de 2026, con el Ministerio de Educación, Formación Profesional y Deportes, para la dotación de auxiliares de conversación a centros educativos públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el curso 2026/2027.

ETXEBIZITZA ETA HIRI  
AGENDA SAILA

DEPARTAMENTO DE  
VIVIENDA Y AGENDA URBANA

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa 2023ko martxoaren 30ean Andoaingo Udalarekin sinatutako hitzarmena salatzeko eta likidatzeko. Hitzarmenaren helburua: gizarte-babeseko etxebizitzak sustatzea Andoaingo udal-mugarteko Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan.

22 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la denuncia y liquidación del convenio suscrito, el 30 de marzo de 2023, con el Ayuntamiento de Andoain, sobre promoción de vivienda de protección social en los ámbitos de Etxeberrieta, Ama Kandida y Agirialai, del término municipal de Andoain.

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Dekretu-proiektua, zeinaren bidez onartzen baita Osasuneko Mahai Sektorialak 2026ko uztailaren 20ko bileran hartutako Akordioa, medikuen eta fakultatibo espezialisten jardun profesionalaren baldintzei buruzko neurri espezifiko batzuei buruzkoa.

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE  
ETA BERRIKUNTZA SAILA

23 Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Acuerdo de la Mesa Sectorial de Sanidad sobre determinadas medidas específicas relativas a las condiciones de desempeño profesional del personal médico y facultativo especialista, alcanzado en su reunión del día 20 de julio de 2026.

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,  
UNIVERSIDADES E  
INNOVACIÓN

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) ikastetxe elkartuei, beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan gara dezaten 2026ko ekitaldian.

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

24 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a los centros asociados de la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED), para el desarrollo de su actividad en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2026.

DEPARTAMENTO DE  
TURISMO, COMERCIO Y  
CONSUMO

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen gobernu-organoak berritzeko hauteskunde-deialdia.

JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SAILA

25 Propuesta de Acuerdo de toma de conocimiento de la convocatoria de elecciones para la renovación de los órganos de gobierno de las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DEPARTAMENTO DE  
JUSTICIA Y DERECHOS  
HUMANOS



Dekretu-proiektua, Memoriaren,  
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen  
Institutuaren Estatutuei buruzko  
Dekretua aldatzekoa.

26

Proyecto de Decreto de modificación  
del Decreto de Estatutos del Instituto  
de la Memoria, la Convivencia y los  
Derechos Humanos.

IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGE BILTZAR-EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 23an.

En Vitoria-Gasteiz, 23 de julio de 2026.

IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.  
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,  
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA  
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,  
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO